

# Arrasate P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 13a / 610. zenbakia

## ARRASATE MUSIKALEN KONTZERTUAK

Arrasate Musikaleko ikasleek hainbat kontzertu emango dituzte herrian egunotan



ORAIN ETA HEMEN: KULTURA ETXEKO LANAK, GELDI/6 • KIROLA: SANTAMASETAKO 25. KROSA/9



# ARREGI

Arte eta enmarkazioa

## ERAKUSKETA KOLEKTIBOA FORMATU TXIKIAN

abenduaren 5etik urtarrilaren 10era

- |                              |                              |
|------------------------------|------------------------------|
| Juan Luis Goikolea (margoak) | Iñaki Riviere (margoak)      |
| Kepa Landaluze (eskulturak)  | Jabi Mayor (margoak)         |
| Kepa Altube (margoak)        | Iñigo Arregi (obra grafikoa) |

**Aurtengo gabonetan, oparitu ezazu gaurko artea prezio onean**  
Maalako Errebala, 8 - 20500 ARRASATE - 943 79 56 44

**Selmark**  
DANCE VITA (4s)



# SIKOL

Olarte 31 ARRASATE Tel.: 943 79 89 32

*Gabon zoriontsuak  
izan ditzazuela*



## KALEINKESTA/ Zertan gastetan dogu dirue Gabonetan? Larregi gastetan dogu?



**MARI CRUZ RODRÍGUEZ**  
Langillie



**IKER ELORTZA**  
Ikaslie



**RICARDO OSA**  
Langillie



**MARIA MANCEBO**  
Langillie



**CARMEN OJEDA**  
Jubilaue



**JESUS GARAI**  
Jubilaue

Afarixetan, bazkarixetan, loterixan eta parrandetan. Eta erregaluek erosten be mordue gastetan dogu. Izen be, inguru hau oso kontsumitzaillie da, igerten da badaguela dirue.

Erropak erosten gastetan dot, baita Olentzeroko gastuetan (erregaluek-eta egitten) eta parranda egitten be. Jeneralien, Gabonetan bastante gastetan dogula esango neuke.

Danetik dago; jeneralien, erregaluetan. Dana dala, jentiek asko urteten dau oporretan. Norberak ahal dauen neurrixen gastetan dau, hau da, dittuen ditu sarrerak kontuen hartute.

Janarittan, erregaluetan eta erropatan. Asko gastetan dogula uste dot, batez be, euruakin. Gabonengatik be bai, baiñe igerten da dana garestixago daguela eurue dala-eta.

Zaindu egin biher da zenbat gastetan dan, segittuen jueten die-eta euruek. Ahal dan gutxien gastau biher da, ez da gehiegikeriarik egin biher, munduen biher haundixe dago-eta.

Bestetan baiño gasto haundixague eukitten dogu: turroi apurtxo bat; txanpana; erregalutxoren bat; etxien, bazkalostien, partida bat... Diruari gehixago begittu biherko geuskio.

### TXALOKETATXISTUAK



**TXISTUAK PIBOTE ARRISKUTSUAK** Erdialdean bizi den lagun talde batek kexa bat helarazi digu: erdialdea oinezkoendako babesten duten piboteetako batzuk ez dira beheraino jaisten, eta, horren ondorioz, erdialdean bizi diren gidariek ezusteko bat baino gehiago izan dituzte. Horregatik, Udalarari eskatu gura diote pibote horiek ondo jar ditzala, handik igarotzean autoarekin arazorik ez edukitzeko.

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

#### Frankismoko kalte-ordainak

Frankismoan askatasun bako egoeran egon zirendako kalte-ordainak emango dituzte.

ORAIN ETA HEMEN /6

#### Musika taldeen salaketa

Arrasateko hamazortzi musika taldek azkenaldiko arazoak salatu dituzte.

ZAHARRAK /13

#### Gipuzkoako elkarteak

Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteak eta Gizartekintzak hainbat berbaldi egin zituzten.

### ASTEKODATUA

# 45

#### DUELA 45 URTE ANTZETZU ZUTEN 'LOS GAVILANES'

Astlehenean, abenduak 16, 45 urte beteko dira Arrasaten *Los Gavilanes* zarzuela eskaini zutela. López de Rueda antzerki taldeak eskaini zuen *Los Gavilanes* zarzuela, Gurea pilotalekuan.

### BESTEKEESANA

**“Euskara ikasten ari ziren langileek ez zuten gero enpresan erabiltzen eta ahaleginak ez zuten, islarik izaten. Horren aurrean, plangintza zabalago batean sartzea erabaki genuen euskara batzordean, Antzuolako Elay-ren esperientzia berria jarraituz (...) Plangintza ez da eskolak ematera mugatzen. Langileen premietara egokitzen den hizkuntza zerbitzuak ematen saiatzen gara. Adibidez, mentalizazio taldeak egiten dira hasieran. Erabilera portzentajea igotzen da, baina, hasieran goraka joatea gero mantentzea baino errazagoa da (...) Kooperatibetan zuzendaritzak nahiz goiko organo errektore, kontseilu sozialek... gaia adarretatik hartu behar dute, iritsi baita euskara lehentasun bilakatzeko garaia”**

**JOSE RAMON ELORZA**  
‘KOOP’/02-11-30

### HERRITARRENBERBAK/ Antxon Mendizabal



#### Espainiako elizaren aldarrikapena

**G**aztea nintzenean, ELMAko urtzagintzan lan egiten zuen gudari zahar batek kontatu zidan, gerra zibilaren garaian, Burgosko espetxean goizero ateratzen zutela preso talde bat atari ondoan fusilatzeke. Haien artean, euskaldun pilo bat zeuden. Bezperako gauean hiltzeko hautatuak kapila batera eramaten zituzten. Garaiko preso euskaldunak, normalean kristauak zirenez, konfesatzera joaten ziren. Eta han zeuden bi apaizek (bata jatorriz euskalduna) honako hau esaten zieten: “Nire semea, ezin dizut absoluzioa eman, zure ideia separatistak ukatzen ez badituzu”. Eta gudari haiek angustia, larritasuna eta zalantza betetako gaua igarotzen zuten. Imagina dezagun haiek sufritutako izu krudela. Eta mihi gaizto batzuek diotenez, fusilatzeke unea, gudarietako batzuk “Viva España” oihukatzen zuten, bere arima salbatzeke asmoz.

Elizako beldur izpirituala. Benetako terrorismoaren izua, beldur krudelena. Boteretsuek ezarritako beldur fisikoarekin historian beti loturik egon den beldur izpirituala. Elizak, betidanik, heriotzaren gerokoaren ideia kontrolatu du eta munduko boteretsu, zapaltzaile eta hiltzaileen alde egon da. Jende xumeen kontzientzia izutu egin du eta zapalkuntzaren aurkako erresistentzia geldiarazi du. Genozidioa, hilketa masiboak eta beltzen esklabutza bedekatu egin ditu, eta xumeen erresistentzia suaz zigortu du elizak. Frankoren gurutzada ere bedekatu zuen Espainiako eliza katolikoak.

Zorionez badago xumeen artean *autonomizatu* gura duen eliza, askatasun teologiaren inguruan dabilena. Gutxiengo den beste eliza: txiroen eta herrien aldeko eliza, Euskal Herrian ere daukaguna. Baina, nahiz eta izugarritzko lana egin, ezin izango dituzte garbitu eliza katolikoak egin dituenak.

**“Nahiz eta ikaragarritzko lana egin, ezingo dute garbitu eliza katolikoak egin dituen sarraski guztiak”**

**Arrasate**  
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran  
**ERREDAKZIOA**  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate  
**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

**BANAKETA**  
Julen Aranguren  
**LEGE-GORDAILUA**  
55-1124/88  
**ISSN**  
0214-4654  
**TIRADA**  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaiako  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 13**  
Azkoaga, Iturriotz ..... 943 79 79 99

**ZAPATUA, 14**  
Corcuera, Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26

**DOMEKA, 15**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39

**ASTELEHENA, 16**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74

**MARTITZENA, 17**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30

**EGUAZTENA, 18**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09

**EGUENA, 19**  
Español, Araba étorb. 17 ..... 943 79 18 65

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Igalatorioa ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11

**LARRIALDIAK**  
SOS Delak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan ..... egun osoa

**Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan ..... 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak ..... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

**ERTZAINZA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

**SUHILTZAILIAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ..... 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monteiron ..... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Joan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**'LOS GAVILANES' ZARZUELA**  
Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *Los Gavilanes* zarzuela eskainiko du. Amaia Udal Antzokian egingo dute, 19:30ean.

**ARRASATE MUSIKAL**  
Gaur, egubakoitza, ikasleek Gabon kontzertua eskainiko dute. Eta domekan, txistulariek eta tronpetariak egingo dute emanaldia. Astelehenean, martitzenean eta eguenean ere izango dira kontzertuak.

**ARIN-ARIN ETA FANDANGO**  
Domekan, X. Binakako Arin-arin eta Fandango Txapelketa egingo dute, herriko plazan, 18:30ean.

**GLOBALIZAZIOAREN GAINEAN**  
Eguaztenean, abenduaren 18an, Paul Nicholsonek berbaldua egingo du. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 19:00etan, eta berbaldiaren izenburua *Nekazaritza eta globalizazioa* izango da.

**LANDAREAK ZELAN BABESTU**  
Eguenean, abenduaren 19an, landareak babesteko berbaldua, Uribarriko erretiratuen elkartearen, 17:00etan. Uribarriko baserri-azoko alkatezako eta Ekin-ek antolatuta.

**AEDrenAGENDA**

**BERTSOZALEAK**  
Orain dela gutxi AEDko bertso-afarian izan ziren lagun batzuek erabaki dute egubakoitz iluntzetan AEDko txokoa batzea. Zeuk ere parte hartu eta jo AEDko txokora!

**ZAHARBERRIKO IZENEMATEA**  
Zaharberri euskaldun zaharren eta euskaldun berrien premia dute.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

**IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

**IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**UCEM itxi gura zutela salatu zuten sindikatuek**

UCEMeko CCOO, ESK eta LABek lantegiko zuzendaritzaren azken erabakiak salatu zituzten. Sindikatuen esanetan, UCEMek 3R planean sartu zuen itxiera, eta 1.050 milioi pezetako dirulaguntza eskatu zion Jaurlaritzari. Espekulazioarekin etekina atera gura zutela salatu zuten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Perratzaillia"*



Ferratzailea. — *Osintxuko perratzailliakin egon naiz.*

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Arrosa Irratiarekin bat egin genuen**

Joan den egubakoitzean, Durangoko Azokaren berri zuzen-zuzenean jasotzeko aukera izan genuen irratian. Euskal Herriko beste hainbat irratik bezala, Arrasatekoak ere bat egin zuten Arrosa Irratiaren magazinarekin. Ordu bi iraun zuen magazinak, eta 15:00etan eskaini genuen. Bestalde, bihar, zapatua, Andoainen Arrosa proiektua inauguratu dute. Asteburuko elkarrizketen artean, irratian horren nondik norakoak jakiteko aukera izango duzue.

**Itsasontzi patroiak Arrasaten**

Oraingo astean, itsasoa oso gustuko duten arrasatear birekin izan gara: Jose Ramon eta Andoni Zabaleta anaiekin. Ikastaro bat egin dute itsasontzi txikiak gidatzen ikasteko, eta dagoeneko lortu dute baimena. Bestalde, zarzuelan parte hartu behar duten lagun batzuekin ere izan gara. Asteburuan izango da zarzuela, baina nondik norako guztiak irratian aurreratu ditugu. Elkarrizketak zapatuan eta domekan errepikatuko ditugu.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Astelehena, 9	<b>5 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Martitzena, 10	<b>13 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>101 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 4	12 °C 8 °C 29,3 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 5	9 °C 7 °C 34,8 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 6	9 °C 6 °C 32,6 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 7	8 °C 7 °C 3,2 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 8	9 °C 6 °C 0,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 9	10 °C 5 °C 0,8 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 10	13 °C 5 °C - l/m <sup>2</sup>

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorian agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tartea.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra

**ASTELEHENA**  
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras. Estilo desberdineko musika.

**MARTITZENA**  
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria. Albiste bitxiak eta musika.

**ZAPATUA**  
11:00 Asteko elkarrizketak: Jose Ramon eta Andoni Zabaleta. Arrosa Irratia Mikel Peruarenarekin.

**DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak

**ASTEABIHITZETAN**

**Hirugarren Munduari laguntzeko azoka**

Harreman gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, zabalik da Hirugarren Munduari laguntzeko azoka. Batutako lanak -40 inguru- Harresi aretoan jarri dituzte salgai, eta batutako dirua Kolonbiako Andeetan dagoen Guatica herrirako izango da.

Azoka hori abenduaren 5ean inauguratu zuten eta hilaren 24ra arte egongo zabalik. Harresi aretoan dauden 40 lanok Arrasateko margolarien eta ibarreko beste margolari batzuek emandakoak dira. Eskuratutako diruarekin, elikaduraren industriarekin, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako teknika eta ezagutza berriak zabaldu dituzten eskola-lantegiak eraikiko dituzte.

**Urkuluko urtegia, dezente gora**

Joan den astean izan ziren euri zaparradei esker, Urkuluko urtegiaren ur mailak gora egin du, eta ez Urkuluko ur mailak bakarrik; izan ere, Gipuzkoako urtegi guztiak daude ur askorekin. Ibarreko urtegia Gipuzkoako handienetakoa da, Urolaldeko Ibai-Eder urtegiarekin batera.

Urkuluko urtegiak edukieraren %85 dauka beteta. Orain dela aste bi, %70 zuen beteta urtegiak; hortaz, zazpi egunean asko bete da Aretxabaletako urtegia.

**Mondrauetarrak taldeak berbaldia**

Mondrauetarrak taldeak antolatuta, antiglobalizazioa eta autodeterminazio eskubidea izan ziren aztergai martitzenean Monterronen. Antxon Mendizabal izan zen hizlarietako bat. Puerto Alegren eta Florentzian hainbat naziotako jendearekin egon ostean, hantxe egindako diagnostikoa plazaratu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak.

Antxonon esanetan, Amerikako kulturaren inposaketaren aurrean, estaturik gabeko herriak dira kaltetuenak.



**Espainiako Konstituzioaren kontra**

Joan den egubakoitzean, Espainiako Konstituzioaren Egunean, hainbat ekintza egin zituzten ikasleek. Segi eta Ikasle Abertzaleak taldeek antolatu zituzten mobilizazioak. Besteak beste, berbaldiak, herri eskolak eta kale agerraldia izan ziren egubakoitzean Arrasaten.



**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran**

*Egoera ekonomiko larria*

**G** abonak iristear daude, eta, urtero moduan, janari, edari eta oparien gastu gehiegikeriak egingo ditugu. Horren aurrean, beste lurralde batzuetan bizi duten egoera larria aipatu genezake, eta ez da txantxetako munduko hainbat lekutan bizi duten egoera latza. Gure artean, Arrasaten, gero eta familia eta norbanako gehiagok

Gizarte Larrialdietarako laguntzak eskatu dituzte. Arrasaten bizitza maila altua daukagu, baina egon badaude arazo ekonomiko larriak dituztenak.

Eusko Jaurlaritzak baliabide urriak dituztenentzako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak izeneko programa dauka. Urtero Jaurlaritzak udalerrri bakoitzari diru kopuru bat ematen dio.

Baina Arrasaten eta inguruko beste udalerrri batzuetan dirulaguntza horien eskaerak hazi egin dira eta Jaurlaritzak, berriz, ez du diru kopurua handitu. Eskaera egin duten batzuk laguntza barik gelditu ez zitezen, iaz eta aurten Udalak jarri du eskaeren eta Jaurlaritzak emandako kopuruaren arteko diferentzia; 18.000 euro eta 60.000 euro, besteak beste. Guztira, Arrasaten ehun bat familiak eskatu dute laguntza hori.

**ASTEKOIRUDIA**



AITOR URIZAR

**SERGEI OSOKIN ERRUSIARRA, GARAILE, NAZIOARTEKO X. AKORDEOI LEHIAKETAN**

Sergei Osokin errusiarrak irabazi du Arrasaten egin den Nazioarteko X. Akordeoi Txapelketa. Iban Galdos oiartzuarrak, berriz, hirugarren postua eta Entzuleen Kutxa saria eskuratu ditu. Aurtengo akordeoi lehiaketan Aitor Furundarena musikaria eta Niko Lizeaga aktorea ibili dira aurkezle lanetan.

Abenduaren 4tik 8ra bitartean zortzi akordeoilari ibili dira lehian, eta aurtengo onena Sergei Osokin errusiarrak izan da. Bigarrena ere errusiarrak izan da, Alexander Selivanov, eta Iban Galdos euskaldunak hirugarren postua eskuratu du. Ibanen esanetan, postu hori defendatzea gaitza izango da.

**ALDEDI**  
Burdindenda

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

arbolapeta  
**beinke**  
arrasate

**P**  
**Pando Errotuloak**  
Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70


- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

HIRIGINTZA / Kultura etxea egiteko lanekin arazoak izan dituzte, eta geratuta daude

# Kultura etxeko lanak geratu behar izan dituzte

ARRASATE PRESS

Kultura etxe berria egiteko lanak geldiarazi egin ditu Udalak. Kontua da eraikinaren hormak uste baino egoera kaskarragoan daudela. Orain, Udalak eta Diputazioak, bien artean erabakiko dute zer egin. Edozelan ere, hasiera baten ez dute eraikina botako.



AITOR URIZAR

Kultura etxeko egitasmoa egin zutenean, ez ziren egoerarekin jabetu.

Itxura denez, ospitale zaharraren hormak ez dira uste zuten bezain sendoak. Eraberritze lanak egiteko eraikina barrutik hustera-koan eta eranskin batzuk kentzerakoan jabetu dira horrekin. Argitutakoaren arabera, egoera kaskar horren arrazoietakoa bat da urtetan kontrol barik eraikinean egin dituzten eraldaketak; esate baterako, leihoetan egin dituzten lanak.

Arrasateko Udaleko alkate eta Hirigintza Saileko buru Xabier Zubizarretak GOITBri esan zionez, egitasmoaren azterketa egitean teknikariak ez ziren egoera horrekin konturatu.

## MONUMENTU HISTORIKOA

Udalak eman dio dagoeneko Gipuzkoako Foru Aldundiari arazoaren berri, eta erakundearen iritziz, hasiera baten ezin da eraikina bota, monumentu historikoa da-eta. Aukera bi proposatu dituzte Aldundiko ordezkariak: bata, hormari eutsi eta okerrak banan-banan zuzendu; eta bestea, ahul dauden horma zatiak bota eta berriro eraiki. Zer egin erabaki-

*Egoeraren arrazoietakoa bat da kontrol barik eraikinean egin dituzten aldaketak*

tzeko batzarra egingo dute bi erakundeetako ordezkariak.

Kultura etxe berriko lanek ia lau milioi euroko aurrekontua dute, eta 2003. urte amaiera edo 2004. urte hasierarako lanak amai-

*Hasiera baten ezin dute ospitale zaharreko eraikina bota, monumentu historikoa da-eta*

tzea zehaztu zuten. Dagoeneko hilabete batzuk eman dituzte lanok egiten, baina, sortu diren ezusteen ondorioz, aurrekontua eta lanon epea, biak handituko eta luzatuko dituzte.

## Frankismoan askatasun gabetzea jasatearren, ordaina

UBANE MADERA

**Eusko Jaurlaritzak kalte-ordainak emango dizkie frankismoaren garaian kartze-lan, diziplina-zentroetan edo kontzentrazio-esparruetan egon zirenei. Hilabete eta erdi dute eskaerak egiteko.**

Kalte-ordain eskaera horiek egiteko zenbait baldintza bete behar dituzte eskatzaileek, hala nola: egoera horietan sei hilabete edo gehiago egon izana; dekretu hori indarrean sartu zenean (2002ko azaroaren 19an) 65 urte baino gehiago izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren bateko erroldan sartuta egotea, eta askatasun gabetze egoera egon zela erakusten duten zenbait dokumentu, edo dokumentu horien fotokopia konpultsatuak aurkeztea, besteak beste. Horrekin batera, ogasun konpultetan egunean egotea ere eska-

tzen die Jaurlaritzak eskatzaileei.

### ASKO JOTA, HILABETE BI

Pertsona onuraduna hilda bada, posible da, era berean, haren senideek Jaurlaritzaren kalte-ordain horiek eskatzea; betiere, dekretuak zehazten dituen baldintzak betetzen badituzte.

Kalte-ordainak eskatzeko, dekretu hori indarrean sartu zenetik bi hilabete epea eman dute; horrenbestez, hilabete eta erdi inguru geratzen da.

Eskaerak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren hiru lurren ordezkarietara jaso eta aurkeztu ahal dira. Informazio zabalagoa ere han eska daiteke, edo, bestela, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere bada, azaroaren 19ko argitalpenean, hain zuzen ere. Buletin hori herriko udaletan edo Interneten eskuratzea posible da.

## Udalak dirua ipini du gizarte larrialdietako beharrendako

UBANE MADERA

**Arrasateko Udalak 60 mila euro baino gehiago ipini behar izan ditu herrian dauden gizarte larrialdiak asetzeko. Berez, dirulaguntza horiek Eusko Jaurlaritzak ematen ditu, baina ez du diru gehiago eman gura.**

Uda baino lehen agortu zen Eusko Jaurlaritzak gizarte larrialdietarako ematen duen dirua. Arrasateko Gizarte Zerbitzueta-ko teknikari Iñigo Garitanok adierazi digunez, dirulaguntza horiek hartzeko geroago eta eskaera gehiago egiten dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko udalei ematen dien dirua ez da nahikoa izaten eskaera guztiak asetzeko, baina, Jaurlaritzak, ez du partida hori handitu azken bi urtetan. Horren ondorioz, diru hori agortzen denean, udal batzuek eten egiten dituzte mota horretako



AITOR URIZAR

Musika taldeen ordezkariak, osoko bilkuren aretoan.

## Azkenaldiko erasoak salatu dituzte zenbait musika taldek

UBANE MADERA

**Arrasateko 18 musika taldek "azkenaldian Euskal Herriak jasaten dituen erasoak" salatu zituzten martitzenean. Erasoen barruan, musika taldeen kontrakoak ere badirela jakinarazi zuten.**

Horrekin batera, bat egin zuten datorren abenduaren 19rako deituta dagoen bi orduko lanuztearekin.

Horren berri emateko prentsaurrekoa egin zuten martitzenean. Euren esanetan, gaur egun aktibo dauden herriko musika talde guztiak bat egin dute egoera salatzeke. Eta, salatu zuten, gaur egun gertatzen ari den legez kanporatze prozesua "Euskal Herriaren nortasun eta duinta-

sunaren alde lan egiteagatik" da. Eraso hori "Espainiako Estatuak bideratu berri duen kanpaina" baten barruan kokatzen da. Gaineratu zuten musika taldeek ere jasaten dutela eraso hori: "Oztopoak kontzertuak egiteko orduan, atzera botatako kontzertuak, lintxamenduak tertulianoen aldetik, terrorismoa babesten duten musika taldeen zerrenda beltzak, e.a." Esan zuten Arrasateko Ekon eta Numen taldeak zerrenda horretan daudela, Su ta Gar eta Soziedad Alkoholika taldeei elkartasuna adierazi zietenetik. Esan bezala, 18 taldek berretsi dute dokumentu hori: Ekon, RIP, Anger, Bad F Line, Numen, Versus, Septicemia, Kañeria 13, Deskontrol, Arcada Social, Iskanbila, Special Crew, Fase Terminal eta Emboskadak, besteak beste.

## LABUR

### Berbaldi bi Santamas jaien bezperan

Berbaldi bi egingo dituzte datorren astean, Santamas egitarauaren barruan, eta Santamas Komisiñuek antolatuta. Martitzenean, abenduaren 17an, *Baserritik bizitzeko ilusioa* izango du hizpide Felix Ajuriak. Oletako artzaina da, Kerixara baserrikoa, gaztagilea eta Biologian lizentziaduna. Berbaldia 19:00etan hasiko da, osoko bilkuren aretoan.

Eta hurrengo egunean, eguaztenean, Paul Nicholson izango da hizlaria, *Nekazaritza eta globalizazioa* izeneko berbaldian. EHNE sindikatu-ko kide da, baita Via Campesina elkarte-ko kide ere, eta azkenaldian, nazioarteko gaiekin oso lotuta ibili da. 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.



## GOZOKIAK ZERUTIK BEHERA

**A**urten ere San Nikolas formal-formal portatu, eta gozoki mordoak ekarri ditu Arrasate aldera, herriko gaztetxoendako. Etxerik etxe kantuan ibili eta gero, umeak Uarkapen batu ziren; eguraldi eskasa zela-eta, han izan zituen Nikolasek zain, hark ekarritako gozokiak batzeko mota

guztietako tramankuluekin: poltsak, aterkiak, esku handiak... Eta zaindariak, 12 kilo gozoki, sei poltsa chupa-chups, 10 kaxa txikle, gusanitoak, triskiak...eta, jakina, gaztainak barra-barra bota zizkien arrasatearrei. Hortaz, beste urtebetez poltsikoak ondo beteta joan ziren guztiak etxera!!!



## SARIA BERGARARA JOAN DA


**K**ontxi Heis Lasheras bergararrak poltsikoratu ditu oraingo honetan ibai-arte merkatarik elkartek zozketatutako 600 euroak. Zubizarreta Galeria 44 opari dendan egindako erosketa bati esker lortu zuen txartel irabazlea. Gogoratu hil honetan, abenduan, 1.200 euro zozketatuko dituela ibai-artek.



## EGURALDIARI BEGIRA, BAINA GUSTURA BEDOÑAN

**A**zken egunotako eguraldi eskasa dela-eta, auzoko jaiak bertan behera uztekoan izan ziren bedoñarrak. Baina arnasa hartu, ondo jantzi, eta aurrera egin zuten Santa Eulalia jaiekin. Antxon Ugalde auzo-alkateak kontatu digunez, egubakoitzean, euripean ibili ziren, eta, adibidez, Doke Txapelketa barruan jokatu behar izan zuten. Zapatuan, berriz,

eguraldiak hoberantz egin zuen, eta jaiak bukatu arte lanbroa izan zuten lagun Bedoñan. Edozelan ere, nahiko giro polita izan zutela eta gustura ibili zirela esan digu auzo-alkateak. Gure argazkiko umeak, behintzat, ederto asko ibili ziren txokolatea jan eta jan; eta nagusiagoak ere mahaiaren bueltan eseri eta briskan eta musean ibili ziren, besteak beste.



## ARRASATEKIROL PROIEKTUA



La Merced A taldea izan zen aurrekirolean mini-eskubaloiko txapeldun.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

HAINBAT TXAPELKETATAKO LEHENENGO IRABAZLEAK

## Arrasate Kirol Proiektuko lehenengo txapeldun gazteak

Txapelketetan taldeen indarrak pare-parean izan dira

XABIER URZELAI / AKP

**Arrasate Kirol Proiektuak dagoeneko baditu aurtengo lehenengo txapeldun gazteak. Aurrekiroleko neska-mutikoak mini-eskubaloian ibili dira, eta multikirolekoak mini-saskibaloian jokatu dute. Antolatzaileen esanetan, txapelketan parekotasuna izan da nagusi.**

Dagoeneko baditugu lehendabiziko garaileak AKPn. Horiek aurrekiroleko eta multikiroleko etapako taldeak dira, eta euren etapei dagokien kirolaren araberaren honela sailkatu dira:

Aurrekirolean lehen hiruhilabete honetan mini-eskubaloia lantzen ibili dira. Garailea La Merced A taldea izan da, 43,5 punturekin, bigarren sailkatua Arizmendi ikastolako Gazteluondo 4 D taldea izan da, 40 punturekin, eta hirugarren Gazteluondo 4 B taldea sailkatu da, 39 punturekin.

Multikirolean, berriz, etapa horretako neska-mutilek minisaskibaloia izan dute jorratu beharreko lehenengo kirola, eta

lehenengo sailkatuak hauek izan dira: nesketan lehen sailkatua La Merced taldea izan da, 53,5 punturekin, eta bigarrena Arizmendi Ikastolako Gazteluondo 5 taldea izan da, 43,5 punturekin. Mutiletan txapelduna Arizmendi Ikastolako Gazteluondo 6 A taldea izan da, 48,5 punturekin, eta txapeldunordea San Viator A taldea izan da, 44 punturekin.

Partaide guztiek dakiten bezala, Arrasate Kirol Proiektuan sailkapen sistema berezia jarraitzen dute, eta hiru ezaugarri izaten dituzte kontuan: puntuak, jokalarien jarrera eta taldekideen partaidetza. Arlo bakoitzean hiru puntu izaten dira; hortaz, jardunaldi bakoitzean bederatzi puntu izaten dira jokoan.

**AKP-REN HIRUGARREN MENDI IRTEERA**  
Domekan, abenduak 15, AKPk ikasturteko hirugarren mendi irteera antolatuko du. Hauxe izango da ibilbidea: Dorleta-Leixargarate-Kurtzebarri-Mendiola. Eta autobusa 08:30ean irtengo da, Arrasateko Garibai geltokitik. Itzulera ordua, berriz, 13:30ak eta

14:00ak aldera izango da. Edoze-lan ere, eguraldi txarra egiten badu, ibilbidea alda dezakete. Gogoratu irteera horiek ikasleendako eta haien gurasoendako direla; hortaz, animatu eta parte hartu mendi irteeran!

**HIRU TALDE COCA-COLA TXAPELKETARA**  
Bestalde, AKPko hiru taldek asteburuan Bilbon jokatu den Coca-Cola Futbol Txapelketan parte hartuko dute. Txapelketa horretan 13 eta 15 urte bitarteko neska-mutilak izango dira. Taldeak mistoak izan daitezke, eta Arrasateko hiru taldeetako ikasleek Arizmendi Ikastola, La Merced Ikastetxea eta Arrasate-Aretxabaleta Institutua ordezkatuko dituzte. Partiduak zapatuan eta domekan izango dira.

**BASKONIA ELKARTEAREN GONBIDAPENA**  
Eta, bukatzeko, Baskonia elkarteak abenduaren 23an Gasteizen antolatuko duen PINera joateko gonbidapena egin die AKPko umei. PINen ekintza eta jolas ugari izango dira hara hurbilduko diren umeendako.

## Arrasateko Xake Taldeak bigarren garaipena

X.U.


**Zapatuan, Euskal Ligako hirugarren txanda jokatu zen. Arrasateko Rey Ardid B taldearen kontra jokatu zuen, baita irabazi ere (1,5-2,5). Garaipen garrantzitsua izan zen, bilbotarrek maila horretan oso talde ona daukate-eta.**

Lehenengo mahaian Luis Ortégak partida ondo kontrolatu zuen, eta berdindu egin zuen. Bigarren mahaian Josu Tornayk oso partida ona jokatu zuen, eta irabazi egin zuen. Hirugarren taulan Txema Hernando irekitik irten ondoren nahastu egin zen, eta galdu egin zuen. Laugarren taulan, berriz, Isidro Ruizek partida lehiatsua izan zuen, eta merezi onez irabazi zuen. Horrenbestez, garaipen horrekin Arrasateko San Andres Xake Taldea bosgarren dago, 6,5 punturekin.

Datozen asteotan beste txapelketa batzuk izango dira, eta Liga Txapelketak geldituena izango du. Urtarrilaren 11n ekingo diote berritara Liga Txapelketari, eta urtarrilean, bi norgehiagoka gaitz izango dituzte Arrasateko xakelariak, Donostiako Gros B eta Aretxabaletako Arlutz taldeen kontra jokatu beharko dute-eta. Bi jardunaldi horiek jokatu eta gero sailkapeneko bost onenen artean jarraitzen badute, Arrasateko San Andres Xake Taldeak Urrezko Ligara igotzeko aukera asko izango ditu, lehenengo hiru taldeak sailkatzen dira-eta.

Lehenengo mailako liderra Arabako Ruta de Europa taldea da, 9 punturekin. Bigarrena Gasteizko San Viator taldea da, 8,5 punturekin, eta hirugarren postuan bi talde daude: Aretxabaletako Arlutz taldea eta Donostiako Gros B taldea, biak ere 8na punturekin. Aretxabaletarrak liderrak ziren joan den astera arte, baina galdu egin zuten.

## FOTOKIROLA



### Kencik 69-70 irabazi zuen Donostian

Kenci Arrasateko Iturripetik kanpo eskuratzen dituen lehenengo puntuak dira, eta oso garrantzitsuak dira; izan ere, puntu horiei esker, Arrasateko taldea seigarren da sailkapenean. Donostiako Santo Tomas Lizeoa taldeak ez zituen gauzak batere erraz jarri, eta partidu osoan indarrak parekatuta egon ziren. Oraingo asteburuan jokatu da lehenengo faseko azken partidua, eta Calasancio taldea izango da Iturripen bisitari. Urtea amaitzeko, baina, Askartzaren kontra ere jokatu beharko dute.



FOTOKIROLA



### Mondra 7-1 nagusitu zen etxean

Mondrak 7-1 irabazi zion joan den astean Elgoibar taldeari. Arrasateko taldea lehenengo minutuetan aurreratu zen, Iban Garai *Muxi*-k egindako gol bati esker. Bigarren gola ere berehala egin zuen Mondrak. Hala, hamargarren minuturako etxekoak 2-0 ziren aurretik, eta argi zegoen horrela jarraituz gero, gol asko izango zirela ikusgai Atxabalpen. Eta Josu Zubiraren mutilak horrela jarraitu zuten: ondo presionatu, baloiak lapurtu, eta golak egin. Futbol zelaia ez zegoen ondo, baina Mondrak gogoz jokatu zuen, eta argi geratu zen gogotsu zelairatuz gero, gauzak errazago egiten direla. Zumaiako taldeak, baina, ez du kalerik egiten, eta sei puntura dago oraindik. Zumaiarrei lau gol bakarrik sartu dizkiete, eta gaitza da hori hobetzea. /X.U.

### BOULDER TXAPELKETA

#### Abenduaren 21ean, Arrasateko III. Boulder Txapelketa izango da Uarkapen

Arrasateko III. Boulder Txapelketa 16:00etan hasiko da, baina txapelketan parte hartu gura duenak 15:30ean izango du hitzordua, izena emateko. Joan den urtean, 30-35 lagun inguru izan ziren txapelketan parte hartzen. Markel Mendieta eta Olatz Altzua mondragoetarrak izan ziren joan den urteko irabazleak.

### UDAZKENEKO V. FRONTENIS TXAPELKETA

#### Bihar, zapatua, Udazkeneko V. Frontenis Txapelketako finala jokatu da

Aurten, 22 bikote izan dira Udazkeneko V. Frontenis Txapelketan lehian, eta bihar, abenduak 14, jokatu da txapelketako finala. Finala 11:30ean izango da, eta Musakolako pilotaleku txikian jokatu da. Candido Hurtadok eta Jose Izquierdok Roberto Lópezen eta Oskar Mendozaren kontra jokatu dute.

### SANTAMASETAKO KROSA

#### Santamasetako krosetan parte-hartze handia izango dela espero dute antolatzaileek

Aurtengo Santamasetako herri krosa hogeita bosgarrena izango da, eta domekan korrituko da, abenduaren 15ean. Hala, 11:00etan, gaztetxoendako lasterketak izango dira, eta 12:30ean, berriz, nagusien lasterketa hasiko da. Ibilbideak sei kilometro izango ditu, eta, antolatzaileen iritziz, aurten, jende askok parte hartuko du Santamasetako herri krosetan.

Esan bezala, 11:00etan hasiko dira lasterketak. 13 eta 14 urte bitartekoak izango dira korrika egiten lehenak, eta 800 metroko proba izango dute; ordu laurden geroago, 12 eta 11 urte bitarteko umeen txanda izango da. Eta horrela jarraituko dute 7 urteko neska-mutikoen lasterketara iritsi arte, 12:00etan. Horren ondoren, nagusien lasterketa izango da. Koadrilaka parte hartzen dutenen artean, lehenengo bost lagun markak hartuko dituzte kontuan.

Erdiko kale 14. Tel.: 943 79 46 94 ARRASATE



*Gabon dotoreak izan*

ESKUBALOIA

# AGR Arrasatek 36-29 irabazi zion Arrasateri senior mailako derbian

Joan den asteburuan, senior mailako talde biek bina partidu jokatu zituzten

XABIER URZELAI

Joan den asteburuan, Arrasateko senior mailako talde biek bina partidu jokatu zituzten. Lehenengo partidua derbia izan zen; partidua eguenean jokatu zuten, eta talde nagusiak 36-29 irabazi zion talde gazteari. Eta zapatuan, AGRk Iturripen jokatu zuen eta Arrasatek, berriz, Pasaian.

Eguenean, derbia izan zen Iturripen: AGR Arrasate eta Arrasate taldeak izan ziren aurrez aurre. Partidua arratsaldeko zortzietan jokatu zuten. Hala, lehenengo zatian gazteak izan ziren nagusi, baina bigarren zatian gaizak dezente aldatu ziren. Talde nagusia jarri zen aurretik, eta azkenean, Bernardo Balerdiren mutilak nagusitu ziren: 36-29.

### AGR-K LIDERRAREN KONTRA KALE

Bestalde, zapatuan, partidu ikusgarria jokatu zuten AGR Arrasatek eta liderrak, Donibane Majestic taldeak. Txarrena emaitza izan zen, AGRk 21-24 galdu zuen-eta. Partidua ez zen ondo hasi arrasatearrendako, berotze-



GOIATZ ARANA

Zapatuan Iturripera hurreratu ziren ikusleek partidu ona ikusi zuten.

ariketak egiten ari zirela Enekok orkatilan min hartu zuen-eta. Partidu polia izan zen Iturripen jokatu zutena. Talde biek maila ona erakutsi zuten, lehen zatian, batez ere. Hala, 12-12 erretiratu ziren aldageletara.

Bigarren zatian gaizak antzera joan ziren: presio handia eta joko ona. Baina partidua amaitzeko hamar minutu falta zirela,

AGRk behera egin zuen, eta liderak markagailuan aurre hartzeko aprobetxatu zuen.

Bestalde, bigarren taldeak, Arrasatek, denboraldiko bigarren partidua irabazi zuen. Hain zuzen, Donibaneri irabazi zioten, Pasaian, Pitxi Herreroen mutilek: 18-22. Derbian galdu egin zuten, baina Pasaatik puntuak ekarri zituzten arrasatearrek.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

#### A MULTZOA

Saukelu Scream - Betraye	1-10
Maldifa's - Makanaki	3-6
Goma-2 - Al Kaeda	5-3
Rayo Aldeano - Komando Alpagat	0-1
Abocajarro - Etxerat	6-7
Lasagabaster - You Know!	3-4
Iriztu Taberna - NS/NC	7-6

#### B MULTZOA

El Ekipo A - Koka Juniors	0-9
Billy & The Cowboys - Bikain Akad	3-9
Saloga - AC Surkos	3-14
Driblin.es.vg - Etxinail	11-3
Fraguel Gol - AT Celaya	6-6
Estu Ta Larri - Aurrera Bolle	1-18
Whiskeria - Fuxxion	1-5

### PARTIDUAK

#### ABENDUAK 14, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Lasagabaster - Iriztu Tab.	Bikain Ak
11:00: El Ekipo A - Bikain Akad.	Lasagaba
12:00: Maldifa's - Komando A.	El Ekipo A
13:00: Dribling - Aurrera Bolle.	Maldifa's
14:00: Betraye - Al Kaeda.	Dribling.es.vg
15:00: Saukelu Scream - Makanaki.	Betraye
16:00: Estu Ta Larri - Whiskeria.	Makanaki
17:00: Goma2 - Etxerat.	Whiskeria
18:00: Etxinail - Billy & The...	Goma2
19:00: Abocajarro - NS/NC.	Billy & The...

#### ABENDUAK 15, DOMEKA

10:50: Fraguel Gol - Fuxxion.	AC Surkos
12:00: K. Juniors - AC Surkos.	Fraguel Gol
13:00: Saloga - AT Celaya.	Koka Juniors

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

	P	J
1. Makanaki	10	6
2. Iriztu Taberna	9	6
3. Goma-2	9	6
4. You Know!	8	6
5. Saukelu Scream	7	6
6. Betraye	7	6
7. Komando Alpagat	7	6
8. Etxerat	6	6
9. Al Kaeda	5	6
10. NS/NC	5	6
11. Lasagabaster	3	6
12. Rayo Aldeano	3	6
13. Maldifa's	3	6
14. Abocajarro	2	6

#### B MULTZOA

	P	J
1. AC Surkos	10	5
2. Koka Juniors	10	6
3. Dribling.es.vg	10	6
4. Fuxxion	8	6
5. AT Celaya	7	6
6. Aurrera Bolle	7	5
7. Bikain Akademia	7	6
8. Etxinail	6	6
9. El Ekipo A	6	6
10. Fraguel Gol	5	6
11. Billy & The cowboys	4	6
12. Saloga	2	6
13. Whiskeria	0	6
14. Estu Ta Larri	0	6

**OPARITZEKO IDEIAK**

**MULTIOPTICAS**

**GABONETAN**

**35,75**

salneurria 47,50

**Ardoentzako termometroa:**

Ardo neurgailuakin

**GABONETAN**

**42,00**

salneurria 57,00

**Proiektzioko erlojua:**

Ordua goian proiektatzen du, barruko temperatura, erlojua irati-kontrolpean, alarma.

**GABONETAN**

**71,50**

salneurria 101,00

**THB:**

Termometroa, Higrometroa eta Barometroa

**GABONETAN**

**26,00**

salneurria 33,00

**PACK-a:**

Bisera eta Pegatina

**GABONETAN**

**14,40**

salneurria 20,45

**Iparrorratza:**

Metalezko kutxatila, balazta eta esfera argitsuarekin

**GABONETAN**

**50,00**

salneurria 81,00

**Dijital Estazioa:**

Termometroa (barruko eta kanpoko giroa), kablerik gabe, temperatura memoria (gutxi eta handiena), erlojua

**ZORIONAK 2003**

**BERGARA**  
Tel. 943 76 15 75

**ARRASATE**  
Tel. 943 79 29 95

**ORDIZIA**  
Tel. 943 88 99 88

**EIBAR**  
Tel. 943 20 05 22

**ERRETERIA**  
Tel. 943 51 78 11

ELKARRIZKETA

IBAN DEL CAMPO/DOKUMENTAL EGILEA

# “Bartzelonan bizi den Pakistango familia baten bizitza kontatu dugu”

ARRASATE IRRATIA

Iban del Campo arrasatearra Bartzelonan bizi da duela 3 bat urte. Iban kazetaria da. Orain dela gutxi, Kanariar Uhartetako Nazioarteko Bideo eta Multimedia Jaialdian Dokumental Onenaren saria eman zioten. Irratian izan zen.

### Zer moduz Bartzelonan?

Hiru urte daramatzat Bartzelonan, eta dagoeneko ia hangoa sentitzen naiz. Bartzelonan gauza mordo egiteko aukera dago, eta denbora nahiko azkar pasatzen da. Oso hiri interesgarria da.

### Zer moduz egokitu zara Bartzelonara eta hango bizimodura?

Hasieran, nork bere lekua topatzea nahiko gaitza da. Jende asko halako lanak egin guran dabil, eta kanpotik joan ezker, gaitzago da. Katalanarekin ere gorabeherak izan ditut. Ikasten ibili nintzen, baina kostatu zitzaidan. Ondo ulertzen dut, baina ez dut oso ondo idazten.

### Sustatu.com-en bitartez jakin dugu Kanariar Uhartetan sari bat eman zizutela...

Bai, nahiko sari exotikoa, baina eskertzekoa. Nazioarteko Bideo eta Multimedia Jaialdiaren hamargarren aldia parte hartu genuen, eta Dokumental Onenaren saria jaso genuen. Eivissako Elena Marínek eta biok zuzendutako dokumentala izan zen irabazlea. Dokumentalak *Con la bombona auestas* izena du.

### Zer kontatzen duzue dokumental horretan?


Bartzelonako Radal auzoan Las Ramblastik hurbil bizi den familia pakistandar baten gaineko dokumentala da. Familia-burua butano banatzailea da, eta hura hartu dugu abiapuntu. Aitak orain dela hamar urte Pakistanetik Bartzelonara jo zuen, eta lana topatu zuenean, emaztea eta seme-alabak Bartzelonara eraman zituen. Aitak butano banatzaile egiten du lan, eta ezagun da Bartzelonan butano banatzaileek ez dutela kontraturik eta oso lan-baldintza eskasak dituztela.

### Noiz grabatu zenuten dokumental hori?

Nahiko prozesu luzea izan da: orain dela urte bi, familiarekin harremanetan jarri ginen. Grabaketak egiten ia urtebete igaro genuen: astean behin joaten ginen familiaren bizitza jarraitzera. Orain dela urte eta erdi, grabazioak bukatu genituen eta muntatzea egiten hasi ginen.

### Behin dokumentala osatuta, zer dela eta bidali zenuten Kanarietako jaialdira?

Dokumentala bukatu eta denbora gutxira, jaialdi horren berri



ARRASATE PRESS

*“Bartzelonan butano banatzaileek ez dute kontraturik, eta oso lan-baldintza eskasak dituzte”*

izan genuen. Jaialdiak itxura ona zuen, eta han inor ezagutu barik dokumentala bidali genuen. Intuzio hutsa izan zen. Eta, jakina, saria eman zigutenean, izugarritzko ezustekoa izan zen.

### Eta saria hartzera Kanariar Uhartetara joan zineten?

Bai, jakina. Oso egun berezia izan zen, nire bizitzako egun luzeena; izan ere, Kanariar Uhartetako ordu aldaketarengatik egunak ordubete irabazten du, eta, horrez gainera, neguko ordu-tegi aldaketarekin bat egin genuen. Hortaz, hogeita sei orduko eguna izan zen! Jaialdiko antolatzaileek oso ondo hartu gintuzten, eta jaialdia oso ondo egon zen. Egun bakarra izan zen, eta oso ondo igaro genuen.

*“Familia baten bizitzan sartu ginenez, Elenak eta biok egin genuen lan guztia”*

### Zein sari eman zizueten? Hango eskultore baten estatua bat eta diru-sari polita.

### Diru horrekin beste proiektu bat aurrera ateratzeko asmorik badaukazue?

Ez da hainbesteko diru kopurua, baina zertxobaitekin haste-ko baliagarria izan daiteke.

### Zu zeu, batez ere, kazetaria zara, baina bestelako lanak egitea tokatu zaizu, ezta?

Bai, izatez kazetaria naiz, baina dokumental horretan denetik egitea tokatu zaigu. Familia baten bizitzan sartu ginenez, ahalik eta jende gutxien lan egitea erabaki genuen, familiari buruhauste txikiagoak sortzeko. Horregatik, nik kameralari lana egin nuen eta Elenak, berriz, soinu lana.



ARRASATE PRESS

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak Sergio magoarekin etorriko dira Arrasatera.

## Gari, Montxo eta Joselontxo, edo pailazoen tradizioa

IKER BARANDIARAN

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen tradiziozko pailazoen muntaia egingo dute. Amaia Udal Antzokian egingo dute saioa. Hirukote horrek umorezko esketak eta zuzeneko musika uztartzen ditu.

Abenduaren 21ean, zapatua, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen emanaldia egingo dute, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan. Ibilbide luzea egin dute hirurek. 1995ean, hirukote moduan hasi ziren.

### TRADIZIOZKO PAILAZOAK

Gari, Montxo eta Joselontxo tra-

diziozko pailazoak aldarrikatu gura dituzte; alegia, umorezko esketak eta zuzeneko musika uztartzen dituzte. Hain zuzen ere, Gari, Montxo eta Joselontxo euren emanaldietan tronpeta, saxoa eta tuba jotzen dituzte.

Arrasaten *Non dago trukua?* izeneko emankizuna eskainiko dute. Ordubete iraungo du saioak, eta Sergio magoaren laguntza izango dute.

Gari pailazoak ARRASATE PRESSi esan zionez, euren emankizunak umeei baino gehiago, familia osora zuzenduta daude: “Askotan, gurasoek asko disfrutatu dutela esaten digute. Pailazoak ez dira umeendako bakarrik”.



## Arrasate Musikaleko kontzertu mordoaren antolatzaileak

I.B.

Arrasate Musikaleko arduradunak lanean fin dabilta, eta datozen egunetarako hainbat kontzertu antolatu dituzte. Arrasate Musikaleko eskolan bertan eta osoko bilkuren aretoan egingo dituzte.

Gaur, egubakoitza, ikasleek Gabon kontzertua eskainiko dute, Arrasate Musikaleko areto nagusian, 18:30ean; eta bihar, zapatua, Arrasate Musikaleko perkusio taldeak Azkoitian egingo du emanaldia, Jose Ramon Elkororen zuzendaritzapean.

Domekan ere ez dute atsede-

nik hartuko: Arrasate Musikaleko txistulari bandak, txistulari gazteek eta tronpetek eskainiko dute kontzertua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 12:30ean hasiko da, eta Juan Karlos Larreategik zuzenduko du; abenduaren 16an, astelehenean, saxofoi jotzaileek emango dute kontzertua. 19:30ean izango da, Musika Eskolan, eta Laura Diaz de Gereñuk zuzenduko du; martitzenean, bestalde, fagot jotzaileek emango dute kontzertua, Musika Eskolan, 17:30ean, eta Elena Romok zuzenduko du. Bukatzeko, abenduaren 19an, orkestra txikiak eta Big Bandek emango dute kontzertua, Amaia Udal Antzokian, 19:00etan.

## BEHEKODENDATIK

## Ritxar Fernández

## SPORTLAND KIROL DENDAKUE

XABIER URZELAI

Ritxarrek urtebete eta hiru hillebete daroie Sportland kirol dendan lanien; zabaldu euenetik, hortan. Ariñeketan egituko zapatilla batzuk erosteko aholkue biher izen ezker, harengana jo, horren gainien asko daki-eta Ritxarrek. Oingo asteburuen be hara eta hona ibilliko da ariñeketan, seguru.

## Amets bat?

Maratoi bat irabaztie.

Eta amets txar bat?

Eskilleretako tartetik jausten nazela egitten dot amets.

Egin dozun azken biajie?

Almeriara, udan.

Txartel horixe. zeñei?

Politikuei, *Prestige*-kin pase-tan dabillenagaittik.

Eta gorrixe?

Politikuei, jeneralien.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

*Full Monty* / *El Padrino* da irakurri doten azkena / Pearl Jam.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai, atzien daguen negoziuakin bukatetako ez bada be.

Eta prostituziñue?

Hori be bai. Egoera hobien egingo leukie lan.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Ez bata ez bestie ez dot egitten oin, baiñe gurago dot txikiteue, duda barik.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Herriko girue-edo.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparketako problema haundiek eukitten dittut.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Etxebizitzaren preziuek bajetako egingo neuke lan.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Bi esango dittut: Martin Fiz eta Diego García.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Bereziki, iñor be ez.



X.U.

*"Saltzen baiño denpora luziague daroiet ariñeketan, baiñe bixetan dauket ze hobetu"*

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Ibilttekotan, ondo daguen neska batekin izen biherko litzake.

Bizio bat?

Musikie entzutie.

Mendi bat?

Aloña.

Ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Eta faltan?

Lasaixago bizi izetie-edo.

Telebisiñoko programa bat?

Al filo de lo imposible eta hola-ko kirol programak gustetan jat.

Eta irratikue?

Danetik entzuten dot: Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea...

Zertan gastauko zeunke

*"Lanien asko eskertzen dot musikie entzutie, fabrikari ez neuken-eta holakorik"*

dirue?

Kotxe barri baten.

Kirolarixe, eta kirol denda baten lanien. Deskonektetako aukerarik eukitten dozu?

Lanien jentiek karreraren gainien preguntetan dust, eta, askotan, eurekin berba egindde barrenak lasaiketaren dittut.

Lana hamen egindde, material onena ibilliko dozu.

Bai, ahaleginketan naz. Gauza asko probetan dittut.

Zertan zara abillague, ariñeketan ala saltzaille?

Saltzen baiño denpora luziague daroiet ariñeketan; hortan, ariñeketan abillague naz. Baiñe bixetan dauket ze hobetu.

## NIREBIDAIAHURA/ Roberto Moreno

Alpeetara / 2002an, udan

Roberto Arrasateko beste bi lagunekin joan zen Alpeetara. Ez zuten bidaia hasiera onik izan: Iru-nen gasolina hartzen ari zirela, autoarekin kolpe txiki bat izan zuten, eta etxera bueltatu behar izan ziren autoa aldatzera. Horrela, traste guztiak auto batetik bestera eraman, eta goizeko zortzietarako errepidean ziren berriro ere.

Arratsaldeko bostetan iritsi ziren Alpeetara, Chamoni-xera. Helburu garbiarekin joan ziren Arrasateko hiru lagunak Alpeetara: Cervino mendia igotzea, hain zuzen ere. Hala ere, argi zeukatzen Cervinoko gaina jotzea oso gaitza zela. Eguraldiak asko baldintzatzen du Cervinorako igoera, eta zorte handia behar da egun gutxi batzuetarako joan eta eguraldi aproposa izatea.

Arrasateko hiru lagunak, baina, ez zuten zorterik izan, eta jendarmeez argi esan zieten Cervinora igotzeko ez zela giro. Hala ere, Alpeetan mendi asko daude, eta mondragoetar-rrak ez ziren gora begira gelditu. Batetik, Castor mendiko gaina jo zuten (4.230 m); bestetik, Monte Rosa mendi tontorrera ere abiatu ziren, baina hiru lagun beharrean, bost joan ziren, Aretxabaletako bi lagunekin elkartu ziren-eta. Monte Rosak hiru gailur ditu, eta lehenengo biak egin zituzten, hirugarren tontorrera joatea ez zen-eta posible. Alpeetan egin zituzten hamaika egunak nahiko ondo aprobetxatu zituzten, baina mendian eguraldiak du azken hitza, eta, alde horretatik, ezin esan eguraldia aldeko izan zutenik. Eguraldi txarra egin zuen egunetan inguruak ezagutzeko aprobetxatu zuten, eta giro onarekin tontorretara igotzen ibili ziren buru-belarri.

Robertok argi dauka bidaia hartatik zer azpimarratuko lukeen: "Alpeetako mendiak ikusgarriak dira. Sekulako parajeak daude, eta mendi tontorrek forma bereziak dituzte. Hemengo mendiekin alderatuta oso ezberdinak dira". Horrez gainera, gauza bat geratu zen hiru lagun- buruan: Cervinora igotzea.



*"Alpeetako parajeak ikusgarriak dira, oso ezberdinak"*

XABIER URZELAI



Monte Rosa mendira igotzen ateratako argazkia.



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

**"PAL"**


Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea

**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko presidentea, Gizartekintzako ordezkarria eta Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko diruzaina.

## Gizartekintzaren eta Gipuzkoako Erretiratuen Elkartearen berbaldiak

IKER BARANDIARAN

Abenduaren hasieran, Abaroa zaharren elkartearen berbaldi bereziak egin zituzten. Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko eta Gizartekintzako arduradunek Gipuzkoako ibar guztietan informazio-berbaldiak egin dituzte, eta Debagoienari ere tokatu zaio, eta Abenduaren 2an egin zituzten berbaldiak, Abaroan, eta ibarreko zaharren elkarteetako ordezkariek batu ziren. Hiztariak honako hauek izan ziren: Gizartekintzako ordezkarria Tomasa Zabaleta, Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko presidentea Miguel Rubio, eta Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko diruzaina Justo Juan Alberdi, zuzen zuzen ere.

### PENTSIOAK ETA BESTELAKOAK

Gizartekintzako ordezkarria Tomasa Zabaletak Zaharren Aldeko Agiriaren gainean egin zuen berba. Iaz bultzatutako agiri horrek zaharren gizataldea gizarte osoaren zati bezala har-

tuko duen gizarte integratzailea eratu gura du. Hori lortzeko, pausoak eman gura dituzte, eta horretan dihardute. Beste ekimen batzuen artean, Tomasa Zabaletak belaunaldien arteko elkartasuna azpimarratu zuen.

Bestetik, Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko presidente

### Kezka eta arduraren nagusienak

**Aurrekoan Abaroa zaharren elkartearen berbaldi hirukoitzean gaur egun zaharrek dituzten kezka nagusienak azaldu zituzten: pensioen gainerakoak -aurretiko erretiroa eta alargunen egoera, besteak beste- eta Zaharren Aldeko Agiriaren gainean orain arteko eman diren pausoak. Gainerakoei azaldu beharko dizkiete.**

Miguel Rubiok *Erretiratuak hirian* izenburuko berbaldia egin zuen. Haren esanetan, herrian zein hirian elkarri errespetatzen ikasi behar dugu: bai gazteak bai zaharrak, baita auto gidariak eta oinezkoak ere. Ezbeharrak eta arazoak sortzeko errotuaren zati handi bat gidariena dela azaldu zuen, baina oinezkoek ere jarra hobe dezaketela gaineratu zuen. Horrez gainera, eraikuntza oztopoz ere egin zuen berba; izan ere, Miguel Rubioren esanetan, oraindik oztopo asko daude, eta horiek kentzen ahalegindu beharra dago.

Bukatzeko, Erretiratuen Elkarteko diruzaina Justo Juan Alberdik pensioen gainean egin zuen berba, eta Espainiako gobernuak iragarritako igoera zertan gelditu den argitu zuen. Pensioen diru-kopuruak eta ustezko igoerak argitzeaz gainera, alargunen egoera ere izan zuen hizpide. Alargunen egoera kaskarra da, eta azalpenak eman zituen, baita han batutakoen zalantzak argitu ere. Horrez gainera, aurretiko erretiroa ere izan zuen hizpide.

## LABUR

### Gaur, egubakoitza, Santa Luzia Eguna ospatuko dute Toki Argi elkartearen

Gaur, egubakoitza, Toki Argi zaharren elkartearen egongo da zer egin. Apirilean Fatimara bidaiara antolatuta gura dute, eta hori ondo prestatzeko, gaur bertan, 16:00etan, batzarra egingo dute; batzarra bukatzean, 18:00ak aldera, gura duten guztiek txokolate-jana izango dute; eta 19:00etan, Santa Luziaren Eguna ospatzeko asmatan, dantzaldia izango dute, *Quintanilla* akordeoi jotzailearekin.

### Santamasetan txistorra-janak egingo dituzte, baita Bilbora txangoa ere

Hilaren 20an, Uribarriko zaharren elkarteak txistorra-jana antolatuta du. Elkartearen bertan izango da. Horrez gain, abenduaren 21ean, Bilbora, Santo Tomaseko azokara, txangoa prestatu dute. Bestalde, Musakolako zaharren elkartearen txistorra-jana egingo dute Santamas Egunean. Toki Argi elkartearen, berriz, txistorra-jana Santamas bezperan izango da. Jatekorik ez da falta izango, hortaz!



### Toki Argin jaiotza ikusgarria jarri dute

Santa Marinako Toki Argi zaharren elkarteak jaiotza erraldoia jarri du egoitzan. Urteroko ohitura dute Gabonetan jaiotza jartzea, eta egun bi eman dituzte horretan.

Jaiotza bost metro pasatxo luze da eta hainbat irudi ditu: besteak beste, ardi bat, diseatuta. Izan ere, Toki Argi elkartearen arduradunek irudiak erosi zituzten, eta elkarteko eskulan taldekoek irudiok margotu zituzten. Urte batetik bestera irudi berriak batu eta zaharrentako batzuk kendu egiten dituzte. Merezki du Toki Argi elkarteko jaiotza ikustea! /A.B.



EGIN DEZAGUN  
BARKOTZAK GURE  
AHALEGINTXOA



Zahar Berri  
Pablo Uranga 4, behea  
Telf.: 943 711 721  
943 771 228  
zaharberri@aedelkatea.com



ARRASATE  
**Jose Antonio Tena**  
Abenduaren 20an, 24 urte.  
Zorionak! Neskalguna eta lagunak. Muxuak.




ARRASATE  
**Jonatan Atxa**  
Abenduaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE  
**Aitor Madinabeitia**  
Abenduaren 2an, 3 urte.  
Zorionak! Etxekoen eta lagunaren partetik.



ARRASATE  
**Iñaki Abaunza**  
Abenduaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Andoni eta Itsaso.



ARRASATE  
**Leire Lardizabal**  
Abenduaren 6an, 23 urte.  
Zorionak! T.M.T.



ARRASATE  
**Emilio Lagunilla**  
Abenduaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, aita! Txomin eta familia.



ARRASATE  
**Ainitz Etxabe**  
Abenduaren 21ean, 8 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Julen Etxabe**  
Abenduaren 15ean, 8 urte.  
Zorionak! Gurasoen eta arreba Alazneren partetik.



ARRASATE  
**Maider Martínez**  
Abenduaren 15ean, 5 urte.  
Zorionak! Aitaren, amaren eta Enekoren partetik!



ARRASATE  
**Kontxi Maiztegi**  
Abenduaren 12an, beste urte bat! Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Aritz Martín**  
Abenduaren 13an, 3 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Olaia González**  
Abenduaren 16an, 5 urte.  
Zorionak! Aitaita-amamak, gurasoak eta anaia Julen.



ARRASATE  
**Juli Zubizarreta**  
Abenduaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Lorea Lizaraburu**  
Abenduaren 7an, 21 urte.  
Berandu, baina zorionak! Koadrilakoak.



ONATI  
**Julen Iriondo**  
Abenduaren 11n, 23 urte.  
Zorionak, txantxiku! Etxekoak eta lanekoak.



ARRASATE  
**Josu Uribarren**  
Abenduaren 13an, 9 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.

ad **Ibabe**

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Mobiliario  
**ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA


**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE



**weru**

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



**Salterain**

PVC-zko ate eta leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zenbat balio du Laubideko aparkaleku publikoan autoa ordubetez aparkatuta edukitzeak? Zein ordutegi dauka aparkalekuak?



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA: .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **EGUAZTEN**  
**EGUERDIRAKO** ARRASATE PRESSERA!

**Tunacor legatz-kokotxak**  
500g-ko kaxa

**6,29 €** 1047 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**SAIOA OJANGUREN**endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Saioa!  
Galderen erantzun zuzenak:  
**ARRASATE PRESSEK 14 urte egin ditu. 609 ale.**

ARRASATEKOHISTORIA

**Zezenketak Arrasaten, orain dela 500 urtetik hona**

WANDER RAMOS

*Arrasateko zezen-plaza 1886ko ekainaren 25ean inauguratu zuten, San Juan jaietan*

Uhlen euskal toreatzaileen datuak 1400. urtekoak dira, eta Estatuko hainbat plazatan toreatzen zuten. Euskal Herrian -eta Arrasaten- betidanik izan da zezen-zaletasuna, eta Arrasateko historia gordetzen duten artiboetan argi azaltzen da hori. Artxibo horien arabera, 1527an, zezenketak izan ziren herrian, eta geroago, 1631n, plaza publikoan hesiak jarri zituzten. Hesi horiek Maalako ospitalean gordetzen zituzten. 1735eko idatzi baten San Juan jaietarako Nafarroatik bost zezen ekartzeko beharra azaltzen da. Zezen horiek ez hiltzeko agindu zuten, eta hiltzirik itzuli zituzten. Idatzi horrez gain, XVIII. mendeko beste dokumentu asko daude, zezenketen gainekoak. Arrasatearrek zezenketen gaineko atxikimendu eta zaletasun handiena 1880ko hamarkadan izan zuten. 1866ean, Arrasateko Udalak Sociedad Taurina de Mondragon taldearen eskari bat jaso zuen. Talde hark zezen-plaza egitea eskatu zion Udalari.

Horretarako, ondorengo argudioak eman zituen taldeak: Arrasateko bizilagunenak oso interesgarria izango zela eta Santa Agedako bainuetxera joaten ziren kanpotarrek ere eskertuko luketela.

Argumentu horiek kontuan hartuta, Udalak onartu egin zuen zezen-plaza egitea, azken baten, Arrasateren onerako izango zelako. Zezen-plaza harriarekin eta egurrearekin eraiki zuten. Biribila zen, eta tendiduak eta palkua zeuzkan. Zezen-plazan 2.360 lagunendako lekua zegoen. 1886ko ekainaren 25ean inauguratu zuten, San Juan jaietan, eta 1910era arte iraun zuen; urte hartan izan ziren Arrasateko zezen-plazako azken ikuskizunak. Desagertutako Villa Amparoren lurretan egon zen zezen-plaza.



Arrasateko zezen-plazan 2.360 lagunendako lekua zegoen.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko abenduaren 13a / 50. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Aramaioren gaineko bideoa kalean izango da udaberrirako

UBANE MADERA

Udaberrian Aramaioren gaineko bideoa atera behar dute. B30 Producciones enpresa bizkaitarra ari da lan hori egiten. Aramaioko eraikinak, parajeak, jaiak, nekazari etxeak...erakutsiko dituzte. Betiere, herria promozionatzeko helburuarekin.

Iaz hasi ziren Aramaioko lekuak eta kontuak grabatzen, eta udaberrirako guztia bukatuta izatea espero dute. Gero, 500 kopia emango dizkiote Udalarari, banatzeko: bidaia agentzietan, turismo bulegoetan... Helburua da Aramaio ahalik eta leku gehienetan promozionatzea. Hala adierazi du Juan Carlos Revueltak, B30 enpresa bizkaitarreko gerenteak.

### BOST ATAL

Gutxi gorabehera, 20 minutuko bideoa izango da, bost ataletan banatuta: bideoa bera lantzen ari den Angel Forcada errealizadoreak adierazi digunez, lehenengo atalean Aramaioren gaineko ezauzgarri orokorren berri emango dute;



Besteak beste, Aramaioko parajeak eta eraikinak agertuko dira enpresa bizkaitarra egiten ari den bideoan.

bigarrenean Aramaioren aspektu historikoa landuko dute (Limitadoaren gaia, adibidez); hirugarren

atala herriko ondareari eskainiko diote (eraikin erlijiosoak eta bestelakoak: San Martin eta San Este-

ban elizak, Andra Mari eta Santa Ana ermitak, antzinako baserriak eta errotak...); laugarren atalean

*Hogei minutu izango ditu bideoak, eta edukia bost ataletan banatuko dute*

Aramaioko parajeak eta bestelakoak erakutsiko dituzte; eta, Aramaion zehar osteratxoak ere proposatuko dute; eta, bukatzeko, bosgarrenean jaiak eta ohiturak izango dira elementu nagusi: Sagardo Eguna, San Martin jaiak, Andra Mari Kofradiaren ospakizuna, Santikurtzeko erromeria, Erretiratuen Eguna eta antzerako ospakizunak agertuko dira atal horretan. Horrekin batera, Aramaioko jatetxe, nekazari etxe eta bestelakoen berri ere emango dute.

### EUSKARAZ ETA ESPAINOLEZ

Bestalde, bideoa euskaraz eta espainolez aterako dute, eta Aramaioko Udalarari kopiak emateaz gainera, kalean ere salgai ipiniko dute.

## HERRITARRENHITZA/Arantza Ibabe • Langilea

### Baserritarrak eta hiritarrak

Hizkuntza gutxituen solasaldi batean, ama frantsesa duen kide batek nire barrenak ukitu zituen gai bat atera zuen. Berak frantsesa gaztelania bezain ondo edo hobeto menderatzen du. Ikasten ari zela, frantsesa hautatu zuen ikasgai, frantses hizkuntzaren gramatika hobetzeko asmoz. Irakasle, Frantzia iparraldeko hiri handi batean ikasitako espainiarra tokatu zitzaion. Laguna frantsesez berba egiten hasi zenean, bere ahoskera goitik behera aldatu beharra zuela gomendatu zion. Konplexuz beteta, frantses Pirinioetan bizi den aitaitarenera jo zuen

irakasleak esan ziona kontatuz.

Hala, aitaitaren hitzaldi laburra nahikoa izan zen laguna baretzeko. Frantzia iparraldeko eta hiriguneetakoek besteko ondo hitz egiten zutela esan zion. "Zergatik guk txarto eta beraiek ongi?", gaineratu zion.

Pirinio alde horretan bizi direnek okzitanieraren eragin nabarmena ei dute bai ahoskeran baita hiztegi aldetik ere. Hau entzundakoan, nekazal inguruko frantsesa izatearen



**"Ni, jaiotzez, izatez eta bihotzez baserrikoa naiz"**

lotsa guztiak aldenitu zitzaizkion, harrotasunaz ordezkatur.

Beti, esan nion neure buruari, nekazal inguruaz lotuta dagoen edozein gauza txarto edo mespretxuz ikusita egotea ere... Hau kalamitate! Bai, bai eta ez daukagu urrun joan

beharrik. Nire eskola garaian, bigarren mailakoak ginen baserrikook irakasle batzuegandik hasi eta kaletar gehienen ustez. Umeak bai baina leloak ez ginenez dena suma-

tzen genuen. Hau ez dago ukatzerik. Nik ez diot diskriminazio unibertsal honi arrazoirik topatzen. Kontua da asuntok buelta eman duela eta kaletar askok baserrirako bidea hartu duela. *Ai ene bada, nola aldatzen diren gauzak kamarada!*

Ni, jaiotzez, izatez eta batez ere bihotzez baserrikoa naiz eta oso, oso harro nago. Horrexegatik hagitz pozik entzun nuen istorio honen bukaera: Pirinio alde horretako gazte talde bat osatu ei da, okzitanieraz eta bertakoak diren ezaugarri guztiez harro egoteko eta horiek suspertzeko. Bejondeiela!

## LABUR

### Aramaion eskultura berria ipintzekotan

Akaso laster eskultura berria ikusiko dugu Aramaion. Kontua da Caja Vital Kutxa Fundazioak Eskultura Lehiaketa antolatuta duela Araban. Eta, hasierako asmoen arabera, lehiaketa horretan irabazten duen eskultura Aramaion ipiniko dute. Betiere, irabazten duen eskultura hori ipintzeko aukerarik bada (gerta liteke Aramaion aukeratutako lekurako handiegia izatea, edo zaballegia...). Kontuak kontu, Aramaion ipintzea erabakiz gero, dagoeneko gorde diote lekua herrian: Bañera parkearen erdi-erdian, hain justu ere.



ARETO FUTBOLA



Bañerako neskak, gertu-gertu

Bederatzi aramaioar gertu-gertu daude Bañerako nesken taldean jokatzeko. Gainera, iaz baino gogo handiagoarekin jokatuko dute; izan ere, aurten, neskekin osatutako taldeak izango dituzte aurrez aurre, eta ez talde mistoak, iaz moduan. Guztira, zazpi talderen kontra jokatu beharko dute. Partiduetarako epaileak eta partiduetara joateko autobusak, berriz, Areto Futboleko Federazioak ipiniko dizkie. Jesus Mari Palomeroren eta Alberto Ibaeren gidaritzapean entrenatuko dira gure neskak. Ea, bada, aurten iaz baino zorte handiagoa duten!

ZERBITZUAK



Oraindik ere luiziak Aramaion

Joan den asteko euri-jasen zenbait ondorio oraindik bizi-bizi daude. Udaletik jakinarazi digutenez, Zabolatik Untzillarako bidea oraindik moztuta dago, eta ez dakite noiz garbituko duten; izan ere, bidera jausitako lurra nora bota erabakitzea falta zaie. Horretarako, hango lurren jabearekin berba egitekotan dira. Horrez gain, Andra Mari ermitarako bidean ere kontuz ibiltzea komeni da: lurra jausi da eta ez dago oso ondo. Eta Arrasaterako bidean ere izan da luiziren bat zein beste. Bestalde, Arriolatik Etxaguenera bidean jausita zegoena garbitu dute dagoeneko.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bolika	945 44 50 03
Udalekoa	945 44 50 16
Erretintza (Arrasate)	943 79 71 99
Guruzte Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxi eta autobusak	945 44 50 33
Udal kontroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zabalgo Eskualdea	945 43 01 67
Suhaitzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	
20:30	20:45	21:05
21:10	21:25**	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:20	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:00
16:20	17:00	17:15
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute; autobusa ezin du gura duenak, bezperan deitu beharko du eta zenbaki honetara: 629 54 59 23. Izartxoan duten zerbitzuak auzoetara joateko da.

**BOTEPRONTOAN/ Maite Anduaga Lazkanoiturburu · Yoga irakaslea**

*“Inportantea da jakitea norberak zelan funtzionatzen duen eta zergatik funtzionatzen duen horrela”*

**I**az hasi zen Maite Anduaga oñatiarra yoga eskolak ematen Aramaion. Eta aurten ere hortxe ari da, bi taldeekin, astean birritan, astelehenetan eta eguaztenetan:

**Hortaz, Oñatiko eskolatik zator?**  
 Bai, baina zentroa Zestoan dago. Han yogako irakasleak trebatzen dituzte. Meditazio ikastaroak egiten dituzte, medikuntzaren gaineko eskolak, medikuntzaren filosofia...

**Zenbat jende duzu Aramaion (gizonak/emakumeak)?**  
 Gehienak, emakumeak. Zaharrenak 67 bat urte izango ditu eta gazteenak, 35. Bi talde daude: bata, goizean, sei-zortzi lagunekin; eta bestea, arratsaldean, zortzi-bederatzi lagunekin.

**Ia leku guztietan egiten dute yoga. Boladan dagoela uste duzu?**

Denbora tarte laburrean jende ezagunari yoga egiten duela entzun izan diot: Madonna, futbol jokalaria... Telebistan ere agertu da; hortaz, moda kontua izan daiteke, alde batetik. Baina, bestetik, pentsatzen dut gaur egun jendeari asko exijitzen zaiola. Horren ondorioz, jendea estresatu egiten da, jendea bere lekutik irtenda dago, eta horri aurre egiteko zerbaiten



*“Nik ikusi dudana da yogak on egiten diela denei, guztiek topatzen dute zerbait yogaren bidez”*

bila dabil; eta, adibidez, lasaitzea aukeratzen dute askok. Eta nora joaten dira lasaitzera? Yoga eskolara. Askotan, horrela hasten dira yogak.

**Zuk zeuk zergatik gomendatuko zenuke yoga egitea?**

Yoga denerako da ona. Adibidez, aurreneko erlaxazio ariketa egin, eta berehala igartzen dira onurak; horrez gain, yogak hasi eta poliki-poliki jendeak ikusten du yoga erlaxazioa baino gehiago dela. Apurka-apurka, nor bere burua ezagutzeko joaten da: gorputz fisikoa zelakoa den, zelan funtzionatzen duen, gorputz emozionala, burmuina... Yogako eskolara datorrenak zerbait zehatza aurkitu gura du: erlaxatzea edo nor bere burua ezagutzea... Azken baten, yogaren gainean ematen dugun definizioa honakoa da: norberaren zerizan xahuenaz eginiko

bildura kontzientea; hau da, nor bere izanaren kontziente izatea. Yogan dena esperimendu egin behar da: asanak egiten, ariketak, arnas ariketak, erlaxazioak egiten...

**Edozeinek egin dezake yoga?**

Nik ikusi dudanez, denei on egiten die; izan ere, norberak gura duena topatuko du, baina guztiek topatuko dute zerbait. Hortaz, denendako da interesgarria. Askok uste dute yoga egiten dugunok beste bizimodu mota bat dugula, eta ez da horrela. Bizimodu normala egiten dugu; edozelan ere, norbera zelan dagoen konturatuz joaten denez, bizimodua egokitu egiten dugu. Bizimodua beste modu baten ikusten dugu, norbera gauza gehiagorekin konturatzen delako.

**Beste zerbait esan gura baduzu...**

Nire iritziz, oso inportantea da jakitea norberak zelan funtzionatzen duen eta zergatik funtzionatzen duen horrela, eta, era berean, gure buruaren gainean gustatzen ez zaiguna aldatuz joatea. Oso inportantea da nor bere buruarekin gustura egotea. Edozelan ere, horretarako nork bere burua ezagutu behar du lehenengo. Horrek guztiak lasaitasun handia ematen du.

*“Yoga egitea nahi duena kultura etxera etorri dadila, guk ongi hartuko dugu”*

**OHARRAK**

**KONTZERTUA ANBOTON**

Berriro ere Rufian talde gasteiztarrek bisitatuko du Anboton taberna. Anbotoko lehenengo kontzertua talde berriek eman zuen, eta Aramaio tabernakoekin batera konpondu zirela-eta, berriro ekartzea erabaki dute. Arrasatearrek, gasteiztarrek, amurriarrek eta kubatar batek osatzen duten taldea, eta denetarikoa musika egiten dute. Betiko moduan, kontzertua 20:30etan hasiko da.

**ARETO FUTBOLA**

19:00etan, Aurrera Vitoria taldearen kontra; kadeteek, 19:00etan, Baro Calo taldearen kontra; eta neskek, 12:00etan, Lan eta Gasteiz taldearen kontra.

**ZINEMA**

Oraingo domekan, *Star Wars: el ataque de los clones* filma emango dute; betiko moduan, kultura etxean izango da, 17:00etan.

## ERRETRATUZAHARRA

## Seber Altube plazaren inaugurazioa

Azken urteotan horrenbeste aldatu den Seber Altube plaza jatorrian zelakoa zen erakutsiko dugu oraingo astean. Plaza hori inauguratu zeneko argazkia ekarri dugu horretarako.

1977. urteko otsailaren 19a zen, zapatua. Eta plaza berriaren lanak bezperan bukatu zituzten, justu-justu; langileak goizaldera arte bili ziren lanean hori lortzeko, Pitillasetik ekarritako harria ipintzen.

Ikusten duzuen moduan, jendez gainezka izan zen plaza berria inaugurazio ekitaldian. Jose Antonio Altuna zen orduan Arrasateko alkate, eta honako hitzak esan zituen, euskaraz zein espainolez: "Udaletxeko Plenoak hartutako erabakia betetzen dugu gaur. Aurrerantzean enparantza honi Sebero Altube izena emango zaio; idazle, filosofo, linguista, musikologo eta Gernikako Alkate izan zen arrasatear ospetsu honen izena, hain zuzen, bere Herriaren kulturaren alde lan handia egin zuena". Gero, bi izkinetako plakak desestali zituzten eta Seber



Altuberen ilobak, Karmen Garzia Gorosabelek, hitz batzuk esan gura izan zituen, baina erabat hunkiturik zegoen, eta "Gora Euskadi" besterik ez zitzaion atera. Gero, jendeak *Gernikako Arbola* kantatu zuen.

Egun hartan, gainera, Gernikako Arbolaren 81. kimua landatu zuten

Seber Altube plazan. Horrela, zelanbait, lotu egin zituzten Seber Altuberen bi herriak: Arrasate eta Gernika. Izan ere, makina bat ekimen egin zituen Seber Altubek Gernikan; tartean, 1933. urtean hango alkate ere izan zen. Edozelan ere, 20 egun geroago, ezezagun batzuek kimua erabat

zanpaturik utzi zuten. Ordainetan, 1978ko otsailean, beste kimu bat sartu zuten haren lekuan.

**Argazkia eta Informazioa:**  
'Seberó Altube' liburua  
**Urtea:** 1977. urtea


## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Iturriotz kalea  
70eko  
hamarkadan

Juan Miguel Epeldek ateratako argazkia da lehenengoa, eta harengana jo behar izan dugu argazkia zein urtetan atera zuen zehazteko. Erreferentzia gutxi ditugu urtea zehatz-mehatz emateko. Elizako berrikuntza lanak egin barik zeuden, Euskadiko Kutxako kartela justu-justu ikusten da, eta argazkian agertzen den autoa ez da atzo goizean erositakoa.



≈ 1972 Ikusten denez, kalea oso lasai dago. Eta, ondo ikusten ez bada ere, elizako aterpean lagun bi daude, lasai asko berbetan.



2002 Egun, San Juan eliza guztiz eraberrituta dago, eta zorua ere aldatu egin dute. Eurria egiten duenean, baina, orduko aterpea faltan sumatzen da.

**BASATI**  
**TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
TLF. 943 711768

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugaide, 38 • Tel.: 943 79 13 78

**AGR**  
García Ripa  
**ERREFORMAX S.L.**

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**  
Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zorruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**  
Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak

JANTZIDENDA



www.LASAGABASTER.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

**urrindegia** perfumeria  
**ZARRAOA**

Kanpantorpea, 4  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 12 19



Davidoff  
Cool Water

%15eko deskontua  
+ opariak



Freskoa  
Erakargarria  
Garbia



Arrasatear guztioi,  
Gabon zoriontsuak eta  
Urte berri on!



Oparien eta  
larruzko artikuloak



Moda osagarriak



Kosmetikan  
adituak



# 1.000 eurogatik, zuk aukeratu



## fordfiesta

Fiesta gasolina gama **9.000 €\***-tik aurrera  
Fiesta diesel gama **10.000 €\***-tik aurrera



## fordfocus

Focus gasolina gama **11.000 €\***-tik aurrera  
Focus diesel gama **12.000 €\***-tik aurrera

Mila euro, hori da diferentzia. Edozelan ere, segurtasun maila bera, ABS bera eta IPS bera. Sentsazio bera gidatzerakoan, kontrol bera eta, zelan ez, plazer bera.

Goatzeko pentsatuak  
irauteko eginak



Fiesta gasolina Ambiente 1.3 5 ate, 70 ZP / Fiesta TDCi Ambiente 1.4 5 ate, 68 ZP  
Focus gasolina Intro 1.4 3 ate, 75 ZP / Focus Intro 1.8 TDDi 3 ate, 75 ZP

Focus gama, kontsumo ponderatua, 5'1etik 9'1 litrorra/100 Km-ko. CO2 emisioak, 135etik 218 G/Km-ra.  
Fiesta gama, kontsumo ponderatua, 4'4tik 6'9 litrorra/100 Km-ko. CO2 emisioak, 117tik 164 G/Km-ra.

# MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea z/g

ARRASATE

943 79 75 64